

# Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1996ko urriak 10 • 107.zka.




Zinea hasiko da

Alberto Elkorobarrutia Saharan irakasle

Kriterium profesionala eta kross herrikoia

Etorkizunerako ikasten





Beren kontura lan,  
egiten dutenentzat.

**Eskerrak  
norbait  
oroitu dela  
beren  
kontura  
lan egiten  
dutenekin.**

## Kontu profesionala.

Euskadiko Kutxak beren kontura lan egiten duten profesionalen finantza-beharrak sakon aztertu ditu. Eta erantzun ausarta eta eraginkorra eman die zerbitzu oso eta berezi baten bidez. Kontu Profesionala. Finantza Entitate bati eskatuko zeniokeen guztiarekin.

Orain, dirua gogor lan eginda irabazten ikasi duzun horrek, aholkularitza fiskal eta finantzarioan aditua den talde baten laguntza duzu.

- Hasteko, interes handiagoa kontu korrontean. % 5,5\*erainoko UTB.
- Zorpekoak % 10eko interes nominallean (% 10,38ko UTB).
- Mantenimendu-komisiorik gabe, hiru hilero saldoan batazbeste 150.000 pta.tik gora izanez gero.
- Libreta aukeran, inolako kosturik gabe.
- Horrez gain, honako abantaila hauek izango dituzu Kontu Profesionaleko titular zaren aldetik:
- Aholkularitza Fiskala doan, telefono-zerbitzu iraunkor baten bidez: 8:00etatik 22:00etara 901-333 444an.
- Gaixotasunagatiko Baja Asegurua\*\* merkatuko antzekoak baino % 25eraino merkeagoa.
- Zure proiektuen finantzaketa, baldintza bereziko Kreditu linea baten bidez.
- Banka Telefonikoaren (Telebanka) zerbitzua doan lortzeko aukera.

Informa zaitez Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan, goizez nahiz arratsaldez. Edo 901-333 444an, gaueko 10ak arte.

\* Ordaindu gabeko eguneroko gutxienezko saldoa 150.000 pezeta. Kopuruaren arabera ordainketa. UTBren adibideak: 250.000 pezetarekin %1,6. 500.000 pezetarekin %2,8. 1.000.000 pezetarekin %3,82. 5.000.000 pezetarekin %5,5.

\*\* Aegon, S.A. Aseguretzearekin kontratatua.



**CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA**

**Erantzun zuzena**



**GARAGE NORTE S.L.**

Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABALETA






# Zer duzu esateko San Migeletako zapatu gauean gertatutako istiluetaz?

*Julen Barandiaran  
(Langilea)*

Bai kontenedoreak erre zituztenen eta Ertzantzaren jarrera ere kritikagarriak dira. Ertzantza pasatu egin zen. Kontenedoreei sua emanda ez da ezer konpontzen.



*Agurtzane Inurrategi  
(Langabetua)*

Ertzantzaren jarrera neurrigabekoa eta lotsagarria izan zen. Pasatu egin ziren, eskerrak herriko jendea ez zela probokazioetan erori.



*Jose Luis Eraña  
(Langilea)*

Ertzainen papela larregikoa izan zen, jendea beldurtzea nahi zuten. Jendeak oso beldurtuta irten zuen tabernetatik.



*Mikel Uribetxebarria  
(Langilea)*

Ertzantzaren jarrera ez nuen ikusi, entzun dudana-gatik pasatu egin ziren.

Bestetik kontenedoreei sua ematea alperra da, funtzio on bat egiten dute eta.



**MAPFRE**

Aseguroak

Errekararren, 3  
Tfnoa: 77 11 76

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE**  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 77 13 57

ARGAZKIAK

*Urkiola*

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA


**BENGOA**  
**URDAITEGIA**

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9  
Tfnoa: 79 19 79



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Kultur sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa**  
**orokorrak**

Errekararren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Josu Urkia.  
**Erredakzio-kontseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz.  
**Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Loramendi K.E., Udala, Mikel Arroibe, M. J. Aretxaga, Gorka Etxabe, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale.  
Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94.  
Aretxagazeta ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

**Aretxagazeta**



## Aretxabaletan zapatu gauean gertatutakoaren inguruko erreflexioa

Zapatu gauean emandako gertakarien inguruan, Aretxabaletako JAI BATZORDEAK bere iritzia kaleratu gura du agiri honen bitartez:

Beroaneko izkinako beira eta paperezko kontenedoreak sutan zeuden aitzakiarekin Ertzantzak izan zuen jarrera neurritz kanpokoa, itsua, harroa eta arriskutsua salatu nahi dugu.

Ordu horretan kalean zegoen jendeak ikusi ahal izan zuen, nolakoa izan zen Ertzantzaren etorrera. Ertzainak furgonetatik jaitsi bezain laster, inolako arrazoirik barik, kalean zeudenei tiroka hasi zitzaizkien. Ertzainak herrian eta jai esparruan sartzeko arrazoia kontenedoreak sutan egotea izan bazen ere, gehiago dirudi gertakari hori jendearen kontra tiro egiteko aitzakia bezala hartu zutela.

Agiri honekin, Ertzantzak herriko elkarbizitza hausteko erakutsi duen trebetasuna salatu gura dugu. Ez da lehendabiziko aldia herrira etorri eta neurritz kanpoko jarrerekin, ustezko "arazoak konpontzera etortzetik" arazoak sortzera pasatzea; gogora dezagun iazko abenduaren 6an gertatutakoa. Gainera, ertzantzak emandako bertsioa, guztiz faltsua dela esan gura dugu (inork ez zuen haien kontra ezer jaurti) eta bide batez jendeak izan zuen jarrera txalotu probokazioetan ez erortzeagatik.

Bestalde eta nahiz eta gertakari hauen inguruan inolako errebindikaziorik egin ez den, badirudi Euskal Herrian azken hilabeteotan ematen ari den "kale borrokaren" estrategiaren barruan emandako

gertakariak direla larunbatekoak.

Hori horrela bada, hau da, "ganberrismo" ekintza bat baino urrunago doazen ekintzak badira, zilegiak diren errebindikazio eta eskubideak salatu edota eskuratzeko biderik zuzenena den galdetu gura dugu.

Horretaz aparte istiluetan zauriak eta kalteak jaso zituztenei gure elkartasuna adierazi gura diegu, bereziki, begian zauritu zuten gazteari.

Salaketa hutsean gelditu ez dadin, JAI BATZORDE honek proposamen hau luzatzea gura du, horrelako gertakariak berriz ez izateko helburuarekin.

1.- Aretxabaletako Udal arduradunek Ertzantzarekin izandako elkarriketa antzua ez dugu onartzen eta Udalari Ertzantzaren kontrako salaketa jartzea eskatzen diogu.

2.- Euskal Herrian bizi dugun arazoa ez da "bandalismo" arazoa, arazo politikoa baizik. Utz ditzagun beraz, alde batetara neurri polizialak, judizialak, eta errepresiboak, hauekin arazoa haunditu baino ez dugulako egiten.

3.- Bukatzeko Jai Batzordeak jaietan izan den partaidetza eskertu gura dugu eta hurrengo jaietan ere ondo pasatzea opa diogu Aretxabaletako herriari.

ARETXABALETAKO JAI BATZORDEA

### ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43



### IMANOL JANARI DENDA

Harategia  
BEREZIKI Urdaitegia  
Fruitategia  
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA




# Zinea urriaren 18an hasiko da

**Udaletxeak 460.000 pezetako dirulaguntza emango dio Cruz Maria Ansoalde enpresari zineko proiektioengatik**

Maiatzetik itxita egon ondoren datorren urriaren 18an hasiko dira zineko proiektioak Zاراia zinean. Hasiera baten udalarekin adostutako moduan, Cruz Maria Ansoalde enpresak jarraituko du lan honekin.

Aurreko denboraldian enpresak galera ekonomikoak izan zituela kontutan izanik, beste akordio batetara iritsi beharra izan dute. Akordio berriaren arabera Udalak 460.000 pezetako dirulaguntza emango dio enpresari.

Momentuz urte bukaera artekoa da kontratua baina martxo bukaerararte luza daiteke. Orduan ikusi beharko da, jendeak izan duen erantzunaren arabera, zineko proiektioekin jarraitzea merezi duen ala ez.



*Oraindik ez dago jakiterik zeintzuk izango diren zinean botako diren pelikulak*

## Zinerako ohitura sortu

Aretxabaletako herriak zinera joateko ohitura gutxi du Ansoalderen esanetan hau oraindik nabarmenagoa da umeen sesioan.

Alde horretatik, herritarrek ohitura berreskura dezaten ahalegin bat egin behar dela esaten du. "Jendea zinerik gabe egotera ohitu da eta beste herri batzutura joateko ohitura hartu du. Hori dela eta, herritarrek Aretxabaletan ere eskaintza ona dagoela ikusi behar dute". Ohitura hauek aldatzea zaila dela azpimarratzen duen arren poliki-poliki egin

beharreko ahalegina dela esaten du.

Sesioak oraindik ere guztiz zehaztu barik dauden arren, ziurrenik lehen moduan jarraituko dute; ostiral eta zapatu gauean, domeka arratsalde eta gauean eta astelehen gauean. Umeen sesiorik egongo den ala ez ikusteko dago oraindik.

Prezioa mantendu egingo da eta botako diren pelikulak merkatuan dauden berrienak izango dira. Horietako batzuk, "Eraser", "Striptease", "El sustituto", "Fargo", e.a. dira.

**Iber**

❁ Paperdenda ❁

Otalora, 2 | Tfnoa: 79 79 24  
Aretxabaleta

**Jauregi**  
Okindegia

Otalora, 10  
Aretxabaleta

**URBALTZ**  
TABERNA

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA

**GEMES**

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 | 79 99 18  
Aretxabaleta

Izozkiteki-Gozotegia  
**IZOZKITEGI**

Otalora, 11  
Tfnoa: 79 93 58  
ARETXABALETA

**BB** Amaia-Berri, S. L.

**Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia**

Otalora, 18 behea  
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA





## 265 jubilatuta elkartu ziren domekan

Herriko jubilatuek ondo erantzun zuten pasatu den domekan eurentzat antolatutako egunean. Udaletxeo gizarte zerbitzuak urtero antolatzen duen egun honetara 265 jubilatuta bildu ziren.

Bazkariarekin pozik gelditu ziren guztiak eta ostean erregali desberdinak jaso zituzten. Guztiek eskuko labana izan zuten oparizat. Honez gain,

emakumezkoei kolonia eta gizonezkoei giltzari bana oparitu zitzairen. Baina hau ez zen guztia izan, bazkariaren bukaeran beste opari mordo bat zozketatu ziren.

Kanpoan eguraldi txarra egon arren, kiroletxean giro ezin ederra egon zen. Gainera, bazkalostean Bego eta Juan Luisen abestiekin dantzatzera animatu zirenak ere asko izan ziren.

## Asteleheneko plenoan EBk aurkeztutako bi mozio onartu ziren

Galindo generalaren ingurukoa bata eta Elkarketa Zibilen Udal Erregistroa sortzearena izan ziren onartutako mozioak

Joan den astelehenean egin zen Udal plenoan Ezker Batuak aurkeztutako bi mozio onartu ziren.

Lehenengo mozioa Galindo generalaren ingurukoa da. Jose Antonio Lasas eta Jose Ignacio Zabala herritarren bahiketa, tortura eta hilketa eragiteagatik auzipetutako Galindo generala aske uzteagatik haserrea erakusten du. Era berean, Galindori emandako askatasuna berriro azter dezatela eskatzen zaio Auzitegi Nazionalako bigarren sailari.

Honekin batera, CESIDen paperak ez desklasifikatzeko gobernuak hartutako

erabakiaren aurkako desadostasuna aditzera ere ematen du eta erabaki hori berehala alda dezala eskatzen zaio gobernuari.

Bukatzeko, aurrean esandakoa Auzitegi Nazionalari eta Eusko Legebiltzarrari ere bidaltzea eskatzen da.

Plenoan onartutako bigarren mozioa, Elkarketa Zibilen Udal Erregistroa sortzearena izan zen. Horrela, ezkontza formalek kanpo dauden bikoteei babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa emateko helburuarekin.

Bi mozio hauez gain, ordenantza fiskalak eta padroi berria ere onartu ziren.

## San Migeletako istiluetan zauritutako gaztea etxean dago lehen operazioaren ondoren

Haritz Zubizarreta, San Migeletako istiluetan begian zauritutako gazte arrasatearra etxean dago. Aurreko astean operatu zuten begitik eta orain nola eboluzionatzen duen ikusi beharko da.

Medikuen adierazpenetan begia ez du galduko baina ikusmenaren zati bat bakarrik errekuiperatuko du.

Bestalde, Ertzantzak denuntziarik ez duela jaso esaten du eta guzti horren inguruan kanpotik entzundakoa bakarrik dakiela.

### VALDEZATE taberna

Bizkaia, 5 / ☎ 79 20 05  
ARETXABALETA

### ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

### MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45  
ESKORIATZA





## EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43

INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 96 66  
Fax: 77 10 33



IBARRA

ESTANKOA

Tabakoa eta  
ikasmateriala  
Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 79 29 26  
ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak  
Elektra-instalakuntzak  
Otalora, 14  
Tfnoa: 79 16 10




Lurrindegia  
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

# Ai ama! Badatorrela! (eta 2)

**Aurreko**  
Aretxagazetan zenbait animaliak beren harrapakarietatik babesteko garatu dituzten hainbat teknika aztertu genituen, hala nola, **POZIOIA** sortzea eta **BEGI FALTSUAK** margotzea. Gaur beste batzuk ikusiko ditugu.



### Mimetismoa

Animalia batzuek, ingurune konkretu batean ezkutatu ahal izateko, bere gorputza aldatu dute. Horrela *kamaleoiak* kolorez aldatzeko erraztasuna dauka, bestalde *itsasoilarra* eta bera bezelako arrain zapalak itsas-hondoari egokitu zaizkio, eta ezin ahaztu zenbait intsektu ere, hala nola *makila-intsektua* edota *hosto-intsektua*.

### Arantzak, letaginak eta adarrak

Adarrak eta letaginak erasotzeko armak izan badaitezke ere, nola ez dute ba defentsarako balioko. *Basurdearen* letaginek aberia latza egin diezaiekete bera ehizatzaera doazenei. Arantzak ere sarritan agertzen dira animalietan, *kirikinotan* adibidez. Teknika hau landareek ere erabili dute (esate baterako *oteak*). Batzutan arantzek pozoiaz ornituak daude, itsaskabraren kasuan letxe.

### Beldurra eman

Zenbait animalia egongo da munduan arriskugabeak izanik ere beldurra ematen dutenak... Erasoa ei da defentsarik onena, hau dela eta, hainbat harrapakinek nahiago izaten dute beren


harrapakariari aurre egin eta hau flipaturik dagoen bitartean alde egitea.

### Tamaina haunditu

Zenbait *igelek*, esate baterako, beren gorputza puztu egiten dute direna baino haundiagoak direla erakutsiz. Horretaz gain zarata itsusiak eta mugimendu arraroak egiten badituzte inpresio galanta eman diezaiekete berauek jatera datorrenari.

### Oskola

Hau da defentsa mekanismorik zaharrena, eta dirudienez nahiko arrakastatsua izan da, izan ere, dinosauroen garaian bizi ziren zenbait animaliak gure artean dirau oraindik. Adibide jatorrena *dordoka* dugu. Baina oskolak baditu bere eragozpenak. Alde batetik animaliak ezin du abiadurarik hartu pisu haundia daramalako berarekin eta bestetik animalia askok oskola aldatu beharra dauka haunditzen doan heinean, *otarrainak* kasu. Esan beharrik ez dago aldaketa momentu kritikoa izaten dela animalia hauen bizitzan.

 Mikel Arroiabe





**Udan irakasle lanetan Saharako basamortuan izan da Alberto Elkorobarrutia. "Mugarik gabeko ingeniari-tza" delako ONG baten bitartez joan zen eta 23 egun zoragarri pasatu zituen bertan. Maisu lana egiteaz gain, bertako bizimodua, kultura eta ohiturak ezagutzeko aukera ere izan zuen.**



Alberto Saharako desertuan irakasle lanetan

**E**z da jende guztiak izaten eduen aukera eta gogoia ere horrelako leku batetara joateko. Baina Alberto Elkorobarrutiak aukera ikusita ez zuen atzera utzi nahi izan. Uztailaren 31an beste 9 lagunekin batera hegazkina hartu eta Sahara basamorturako bidea hartu zuen. Klima, pasaia, bizimodua... guztiz desberdina zen leku batera zihoazen. Esperientzia berri batek itxoi-tzen zituen.

### Zoragarria

Zoragarria izan zen. Esaten digu Albertok filminak erakusten dizkigun bitartean. "Desertu desertura joan ginen, area eta ura besterik ez zegoen lurralde batetara, Tinduf-eko desertura. Afrikako bigarren ur erre-serbarik haundiena dago bertan baina lur azpiko urak dira. Lur gainean, noizean behin, talja izeneko arbola batzuk besterik ez ziren ikusten".

Bertan 23 egunetan zehar, bertako irakasle izango ziren

saharauiei klaseak ematea zen bere lana. Ingeniaritzako arlo batzuk hain zuzen ere, marrazketa teknikoak, teknologia, materialak, praktika desberdinak...

Horretarako goizeko 7retan jeikitzen ziren. "Goizeko lehenengo bi orduetan teoriako klaseak ematen genituen eta ondoren teorian ikasitakoa praktikan jartzen genuen.

Praktiketarako bi tailer zituen eskolak, eta bertan hainbat makina-herramienta zeuden".

Albertok 15 bat ikasletako taldea zuen. Batzuk ingeniariak ziren, Cuban, Errusian... ikasitakoak. "Haiena bizimodu gogorra da. 13 urterekin atzerrira joaten dira ikastera. Cubak irakaskuntza arloan laguntza haundia eman die, beka asko. Horregatik, asko Cubara joaten dira Ingeniaritza, Medikuntza eta elikadura moduko ikasketak egitera".

Hizkuntza ere desberdina zuten baina ez zen komunikatzeko arazorik izan. "Hasaniera dute ama hizkuntza. Gaztelera bigarren hizkuntza da eta gero frantsesa". Alberto gaztelera edo ingelesez komunikatzen zen. Bere ikasle-tarikoko batzuk Cuban ikasi zutela kontutan hartuz hauek ondo menperatzen zuten gaztelera.

**Ura eta area  
besterik ez zegoen  
leku batetara joan  
ginen. Bertan,  
irakasle izango ziren  
saharauiei irakastea  
zen gure lana.**

## JOSE MARI bodegoia

(Eguneko menua)  
(Bataioak)  
(Jaunartzeak)

Nafarroa, 6 • Tfnoa: 79 20 45  
ARETXABALETA

## TXAKOLI

**a** - Pintxoak  
**b** - Kazuelak  
**e** - Pulpo espezialitatea  
**r**  
**n** Andra Mari Auzunea  
Tfnoa: 79 02 25  
**a** ARETXABALETA



## AZKENA TABERNA

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57



**Herri hospitalarioa**

Klaseak emateaz gain, bertako bizimodua ezagutzeko aukera ere izan zuen. Astebukaerak aprobetxatu zituen horretarako. Osteguna eta ostirala ziren haien jai egunak.

Saharai herriaren humiltasunaz eta emateko zuten borondateaz harriturik gelditu zen Alberto. Gutxi izanda ere dena emateko zuten.

Ikasleek behin eta berriz afaltzera gonbidatu zuten. "Beraientzako astebeteko jana zena, guri afaltzeko eskaintzen ziguten: dromedario eta ahuntz haragia, entsalada, ogia... denetik.

Lurrean eserita jateko ohitura zuten eta eskumako eskua erabiltzen

**"Saharauia oso jende hospitalarioa da. Beraientzako astebeteko jana zena, guri afaltzeko eskaintzen ziguten"**

zuten horretarako. Guri oster, gure kultura ezagutzen zutenez, mahaitresnak ateratzen zizkiguten".

Jakina, afal ostean eta baita egunean zehar ere tea sakratua zen. "Egunean 18 te inguru hartzen genituen" -gogoratzen du Albertok. "Tea hartzea errito garrantzitsua zen, orduak ematen zituzten gertatzen. Klase teorikoak ematen ari ginenean ere ikasle batek tea gertatzeko ardura izaten zuen".

Tea hartzen eta nola egiten zen ere ikasi zuen Albertok. Zer esanik ez dago, bertara irakastera joan bazen ere, eurengandik ikasitakoa eta jasotakoa balio haundikoa izan zela.

**Basamortuko Saharauiak**



"Saharai herria orain 20 urte eruen lurretatik exiliatua izan zen. Gerraren ondorioz Sahara mendebaldetik basamortura exiliatu zituzten. Horrela, beren herria basamortuan eraiki zuten. Lau Wilaya (probintzia) antolatu zituzten bertan: Smara, Auserd, Aaiun eta Dajla.

Gaur egun oraindik ere bertan jarraitzen dute baina laster euren lurretara itzuliko direnaren itxaropena dute, Marrucoseko agintea aldatzen denean.

Saharaiar herria kanpotik helitzen zaienaz bizi da, janaria, erropak... Gobernua arduratzen da hondasunak banatzeaz. Kanpoko laguntza handia jasotzen dute,

Euskal Herritik, Frantziatik, Italiatik, Espainiatik... eta honi esker bizi dira.

Bertan ez dute ezer produzitzen, ez dute dirurik manejatzen. Dirua duten bakarrak dromedarioekin Mauritania eta Sahara liberatuan nomada moduan dabilzanak dira.

Egia esan, produzitzeko ere ez

dute aukera haundirik. Ura eta area besterik ez dagoen leku batean bizi baitira.

Gizonezko gehienak militarrek dira eta ejerzitoan daude. Kanpamenduetan gelditzen direnak irakasle, medikuak... dira.

Umeen %100 eskolarizatuta dago. Baina behin 15 urtetara iritsitakoan kanpora joan behar izaten dute ikastera. Askok Libiara joaten dira, beste asko atzerrira, Cuba, Errusia, Espainia... Bizimodu gogorra dute hau, 13 urterekin Cubara joan eta 10 urte barru bueltatzen dira. Ingeniaritza eta Medikuntza moduko karrerak ikasten dituzte bertan.


  
**ARILUTZ**
  
 MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA.: 79 32 34


  
**EGUZKIGRAF**
  
 inprimategia

Industrialdea F-0-4  
 Finoa: 794844  
 FAXE: 792944





# San Migelak

*San Migel, San Migel etorri eta joan zinen, haizea bezala. Le penak!*

*Ondo egon ziren jaiak. Eguraldi ederra, Euskal giroa kalean,...*

*Dena polito joan zen, zapatu guieko mobida ezik. Eskerrak jaiak bere hartan jarraitu zuela.*

*Dana dala, jaietako argazkiak hemen dituzue eta antolatzaile batzuen balorazioa ere larlean da.*

*Besterik barik, ikusi itzazue argazkiok.*

## ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5  
Tfnoa: 79 02 24  
ARETXABALETA

## OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA

## Mitartegarai Jatetxea

- Nekazalturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51  
ARETXABALETA







**OMIC**

Joan zen urtean moduan "Barazki biologiko eta etxeko patxaranaren II. feria" gogo haundiarekin prestatu genuen. Iaz feriak arrakasta handia lortu zuen eta horregatik aurten iaz baino hobeto irten zedin saiatu gara nahiz eta ekintza hau antolatzeak lan dexente eduki, esan behar da bezpera arte dena ondo zihoala eta arazorik ez zegoela. Esate baterako, iaz 21 postu egon ziren eta aurten gehiago espero genituen.

Azkenean hitza eman ondoren, 23 postu etorri ordez, 17 besterik ez ziren etorri. Oraindik arrazoiak itxoiten gaude. Dana dala, feria jende askok bisitatu zuela esan behar da, saltzaileei galde diezaietela bestela. Giro jatorra egon zela uste dugu.

Bestalde "Etxeko patxaran" lehiaketarako izan baino hamalau botila gehiago aurkeztu ziren eta epaimahaiak esan zuenaren arabera gehienak kalitate onekoak.

Datorren urtera begira esan behar da bi urteko esperientziarekin hirugarren edizioa hobetzea espero dugula. Berrikuntza batzuk egongo dira eta hurrengo edizioa sorpresa zoragarria izango da denontzat.

**Martin Garai (OMIC)**



**Gauza politik erakutsi zituzten gure herriko artistek**



**Artisau feria ikustera lagun asko hurbildu zen plazara**



**Ze guapa zaudeten biok amonatxo jantzita!**

**AMETS  
TABERNA**

Iparragirre, 4  
Tfnoa: 79 01 29  
**Aretxabaleta**

**Iber**

✿ **Paperdenda** ✿

Otalora, 2 ■ Tfnoa: 79 79 24  
**Aretxabaleta**

**JOSU  
HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia  
Kroasantegia  
"Janari prestatuak"

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08  
**ARETXABALETA**



**FELIX  
PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33  
Etxekoa: 79 42 56



San Migelak



Bazkal ostean trikitilariak alaitu zuten giroa

## ARETXABALETAKO

### TALDE ANTIMILITARISTA

(bazkari intsumisioa)

Guri dagokigunez jendearen erantzuna oso positiboa izan zen, jende asko egon baitzen bazkarian. Bestalde, jai batzordeak ez zuen bete aurrez hitz eginda geneukana, hau da, mahaiak jarri eta kentzeko orduan laguntzearena.

Guretzako oso lan astuna izan da eta beharbada beste urte batzutara begira beste modu batetara antolatu beharko litzateke.

Zapatuan ez baina domekan dotore altxatu zuen harria Perurenak



Murrukixokoek sagardotegi mobila jarri zuten, txerrikume, oilasko eta untxiekin



Momotxorroek majo izerditu zuten. Badaezpada ere sagardotegiaren inguruan gelditu ziren deskantsatzen



*Lubia*  
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE



**EZKUTU**  
TABERNA



**LORAMENDI****ELKARTEA**

Jaiak nola joan diren azaltzerakoan, Loramendikook pozik gaude, bai guk antolatutako ekintzek izan duten jarraipenarekin eta baita jaietan orokorrean jendeak izan duen partaidetzarekin ere.

Guk antolatutako ekintzetan lau izan ziren jendearen partetik harrera onena izan zutenak: Beinke-Loramendi dantza, talo postua, zapatu gaueko txokolatada eta perretxiku erakusketa.

Zapatuko ekintzei dagokionez, trikitilari eta gaiteroek eguna alaitzeko balio izan zutela uste dugu, bide batez, urtean zehar egiten ditugun dantza ikastaroetan ikasitakoak praktikan jartzeko aukera emanaz. Taloei buruz, ezer gutxi dago esateko: posible ote dira San Migelak talorik gabe? Urtero bezala Beinke Loramendi dantza ikustera jende asko hurbildu zen, gainera, aurten Joseba Larrinagari egindako omenaldiak ekitaldia asko jantzi zuen. Goizaldeko txokolatadan barriz, partaidetza handia izan zen arren, aurretik egondako gertaera tamalgarriek txokolatea zertxobait

garrastu ote zuten pentsatzen dugu.

Bestalde, igandean egun guztian zehar egon zen perretxiku erakusketak ikaragarritzko arrakasta izan zuen. Laurogei perretxiku mota desberdin ikusi ahal izan ziren. Kuriosidade eta eztabaida ugari sortu zuen erakusketak ikusleen artean, hau dala, ez dala... Jendearen interesa ikusita, hurrengo urtetan berriz eta ahal bada hobeto egiteko asmoa daukagu.

Bukatzeko, Beinke-Loramendi dantza posible egin duten, musikajole, irakasle, eta partaide guztiei eskerrak eman nahi dizkiete eta nola ez perretxiku erakusketan lagundu dutenei, batez ere Bergarako POL-POL mendizale taldeko mikologi taldekoei, inongo interesik gabe egin zuten lanarengatik.



## Josebari omenaldi beroa



### Joseba Larrinagak merezitako omenaldia jaso zuen.

Beldurtu egin zen txerrikumea ikusi zuenean, eskerrak Peruk muturretik gogor ebatu ziola.

Orain batzuk gustora jango dute txerrikumea. **On egin!**

**B**ihotz-bihotzez, Aretxabale-tako herritarroi eskertzen dotzuet larunbateko omenaldixagatik. Bereziki, (nire koadrila, Loramendi E. E., Jai Batzordea, kale-giroko lagunak, Urbaltz elkarteko lagun, etabarri.) zuen eguneroko lanaz herri honetako kultur eta ohitura euskaldun jatorrak aberasten dozuelako. Baita zuri Kepa, zauden lekutik betik animatu nauzulako. Nire entrenamendu eta lanarekin eskaintzen dotzuet nire eskerrik beroena. Eskerrik asko.

Joseba Larrinaga



**Ikastetxeetako ikasketak amaitzean gero eta jende gehiagok hartzen du unibertsitateko bidea. Gazteentzako lanik ez dagoenez ikasten jarraitzea izaten da gehienek aukeratzen dutena. Azken urteotan titulazio berri asko irten dira eta hezkuntzak aukera zabala eskaintzen du.**

**Ondorengo lerroetan goi mailako ikasketa egiteko ahalmen ekonomikoari eta egoera geografikoari buruz hitz egiten da. Tartean herriko unibertsitari batzuen esperientzia ere kontatzen da.**

**Honez gain, etorkizunera begira, eskatzen den etengabeko formakuntza eta jakituriaren langilearen inguruko erreflexioa egiten da.**



*Edozein lanbidetan etengabeko prestakuntza beharrezkoa izango da*

# Etorkizunerako ikasten

**A**urten ere makina bat lagun hasiko zen unibertsitatean eta baita bestelako formakuntza ikasketetan ere.

Aretxabaletako HEZIBIDEn aurkitu ditugun datuen arabera, Ingeniaritza eta Enpresa-zientziak dira Aretxabaletako gazte gehienek aukeratu dituzten ikasketak.

Bestetik, Magisteritza, Zuzenbidea, Informatika eta Filologia ere arrakastatsuak dira atxabaltar gazteen artean.

Orain urte batzuk, Zuzenbidea, Medikuntza, Ingeniaritza... ziren jende gehientsuenen ahotan zebiltzan ikasketak. Gaur egun, gizartearen behar eta eskariari erantzuteko ikasketak eta titulu berriak sortu dira. Titulazio berri hauei esker espezializazio haundiagoa duten ikasketak eskaintzen dira; ikasleak bere curriculum-a lantzeko aukera hobea izango du horrela.

## **Posibilitate ekonomikoa eta egoera geografikoa**

Gaur egun jende gehienak du goi mailako ikasketak egiteko aukera. Baina honelako ikasketek gastu handia suposatzen dute, are gehiago, ikasketa zentrua etxetik urrun gelditzen denean eta ikasleari ikastetxea dagoen lekuan gelditzea eskatzen dionean.

*“Atxabaltar asko dira inguruko eskaintza ikusita etxe inguruan ikasten gelditzen direnak, Magisteritza, Ingeniaritza, Enpresa-zientziak...”*

Gure inguruak, eskaintzen du goi mailako ikasketak burutzeko hainbat aukera. Eskoriatzan Irakasle Eskola dago, Arrasaten Eskola Politeknikoa (Ingeniaritza), eta Oñatin ETEO, enpresa-zientziak ikasteko.

Bestetik, goi mailako irakaskuntza alorrean bada gure bailaran beste proiektu bat ere, Mondragon Unibertsitatea hain zuzen ere. Mondragon Eskola Politeknikoa, Irakasle Eskola eta ETEO dira proiektu hau aurrera eramaten ari direnak. Inguruko enpresek dituzten beharrak asetzea du helburu.

Atxabaltar asko dira inguruko eskaintza ikusita, etxe inguruan ikasten gelditzen direnak. Iker Ugarte eta Mikel Mendaratx esaterako ingeniaritza ikasten hasi dira aurretik Arrasateko Eskola Politeknikoan. Beraiei gehien gustatzen zaizkien arloak daudelako aukeratu dute, baina etxetik gertu egotea ere kontutan



**“Kanpoan ikastea garestia da, matrikula, bidaia, pisua...”**

hartu dute. “Karrera aukeratzekoan etxetik gertu egotea eta etxean bazkaltzea garrantzitsua da”.

Zuzenbidea, Psikologia, Arkitektura, Filologia,... moduko ikasketek berriz, etxetik urrunago joatea eskatzen dute. Ikasketa hauek egiteko Gasteizera, Donostiara eta Bilbora joaten da gure herriko gehiengo handi bat.

Olatz Izarzugaza esaterako, Donostian ari da Zuzenbidea ikasten. Laugarren urte du aurten. Pisu batean bizi da beste lau lagunekin batera. Hileko errenta 110.000 pezeta ordaintzen dute eta garestia dela aitortzen du. “Donostian oso garesti dago etxean alokairua. Bilbon merkeagoa da. Pentsio batean ere egon naiz eta hilero 50.000 pezeta ordaintzen nuen”.

Goi mailako ikasketek gastu handia suposatzen dute. Kanpoan ikastea garestia da, bidaia, pisua, matrikula... ez da txantxetarako.

**Autobus zerbitzua**

Orain lau urte Bilbora eta Donostiara joan-etorria egiteko autobus zerbitzua jarri zuen Aixola Elkarteak. Badira gure herrian aukera hau erabiltzen dutenak ere.

Igor Etxabek, egunero egiten du Donostiarako joan-etorria. Zuzenbidea ikasten dihardu eta oso gustora ei dago joan-etorria eginez. “Aurreko urteetan pisuan egon naiz. Iaz probatu nuen lehenengo aldiz joan-etorria egitea eta aurten ere autobusez nabil egunero. Ostiralerako nekatuta bukatzen dut baina ni oso gustora nago. Gainera pisuan egotea baino dexente merkeagoa da. Hilero 12.000 pezeta da autobusa”.

Dorleta Agirrek ere egunero egiten du Gasteizerako joan-etorria. Orain 3 urte hasi zen Marketing ikasten eta azkenengo bi urteetan autobusez joan-etorria egitea erabaki zuen. “Institutotik antolatutako autobusa daukagu eta ondo moldatzen naiz autobusez”. Pisuan bizitzea ere badaki zer den. “Pisua askoz ere garestiagoa da eta gainera gutxiago ikasten da”.

Aixola autobus zerbitzua erabiltzen dutenak gero eta gehiago dira. Pisua baino merkeagoa izateaz gain ikasleak bere etxean egoteko aukera du.

**Etokizunera begira. Zer ikasketa aukeratu?**

Goi mailako ikasketak amaitzean, zein ikasketa aukeratu izaten da ikasleen burukomin nagusia. Etorkizuna eta langabeziak gazte asko “irteerak” dituzten karrerak ikastera bultzatzen ditu. Baina sarri aurrera ateratzeko gai ez diren ikasketetan murgiltzen dira. Ez da erraza zer ikasi gura den aukeratzeko. Are gehiago etorkizuneko lanbideak zeintzuk diren esatea. Lanbideek indarra hartu eta galtzen baitute.

Modan dauden lanbideak aukeratzeko ere bide okerra izan daiteke askotan. Honek, ikasketa gutxi batzutan masifikazio handia suposatzen du eta baita merkatuko saturazioa ere.


Bestalde, orain urte batzuk indarra galtzen joan diren lanbideak, gero eta eskaera handiagoa izaten ari dira, hainbat ofizio esaterako, eraikuntza lana, arotza, e.a. Gaur egungo gizarteak formazio profesionaleko tekniko gehiago eskatzen ditu.

**“Edozein lanbidetan etengabeko prestakuntza beharrezkoa izango da”**

**Jakituriaren langilea**

Gaur eguneko gizartean eskatzen den “langile ideala”, pertsona kualifikatua da. Honez gain, gaur eguneko gizarteak etengabeko formazioa eskatzen du eta langilea gai izan behar da egoera eta teknologi berrietara egokitzeko. Era berean, garrantzitsua izango da erlazionatzeko eta taldean lan egiteko gaitasuna izatea, eta baita inizatiba eta kreatibitatea ere.

Garbi dago, etorkizuneko langilea jakituriaren langilea izango dela. Hemendik aurrerako lanbideek irakaskuntza eta hezkuntza izango dute oinarri. Horregatik, etengabeko prestakuntza beharrezkoa izango da edozein lanbidetan.



*Lanbide profesionalek gero eta eskaera handiagoa dute*



## UDAKo 3 talde omendu zituzten Eibar eta Alavesaren arteko partiduan

UDAKo 50. urteurrena dela eta ekin-tza ugari antolatzen ari dira hainbat kirolen inguruan. Pasatu den zapatuan futbolak hartu zuen lekua eta UDAn ibilitako 3 talde omendu zituzten.

Omenaldi ekitaldia arratsaldeko 5etan ekin zen. Eguraldi txarra bazegoen ere, giro polita sortu zen, 3 plantiletako 60 lagun elkartu baitziren Ibarra futbol zelaietan. Guztiek oroigarri bana jaso zuten bertan bildutako ikusleen txaloartean.

Omendutako taldeak, 71-72, 82-83 eta 85-86 denboralditakoak izan ziren. Hiru talde hauek UDA hirugarren mailara igotzea lortu zutenak dira. Honez gain,

esan beharra dago, 71-72 denboraldiko taldeak orain arteko garaipenik haundiena eman diola UDARI. Talde honek Estatuko afizionatuen txapelduna izatea lortu zuen.

Omenaldiaren ostean lehenengo mailan dagoen Logroñes eta bigarren mailako liderra den Eibarrek lagunarteko partidua jokatu zuten. Emaitza eibartarren aldekoa izan zen 1-0. Gola Mikel Cortinak lortu zuen. Partidu honetan Igor Arenazak ere jokatu zuen eta pozik azaldu zen bere taldearen garaipenaren aurrean.



UDAKo hiru denboralditako 60 lagun omendu ziren

### 71-72 plantila

Fernando Aguriondo, Pedro Unzueta, Julian Mayora, Francisco Mondragon, Antonio Buceta, Jose Antonio Murgoitio, Julio Esteban, Migel Angel Camara, Santiago Idigoras, Jose Antonio Etxebarria, Migel Jose Garcia de Iturrospe, Jose Migel Uribarren, Juan Luis Apellaniz, Ignacio Isasmendi, Isidro Vicente, Francisco Agirrezabalaga, Joseba Etxagibel, Agustin Corral, Javier Viteri.

Entrenatzailea: Juanito Arriaran  
Lehendakaria: Javier San Migel  
Delegatua: Jesus Martinez  
Utileroa: Poli Calvo

### 82-83 plantila

Iñaki Agiriano, Eduardo Altube, Alejandro Bastida, Luis Manuel Dieguez, Roberto Etxeandia, Carlos Gomez, Aitor Heriz, Javier Ros, Mikel Urreta, Manuel Guisado, Carlos Agirre, Jose Angel Bueno, Sixto Cebriño, Juan Pablo Domingo, Cesar Fernandez de Heras, Inaxio Garro, J.R. Intxauspe, J.I. Mora, Jesus Romero, Luis M<sup>a</sup> Uribealago, Julian Garcia, Felix Corres, J.M<sup>a</sup> Aizpurua, Salvador Gil.

Entrenatzailea: Patxi Agirrezabalaga  
Lehendakaria: Iñigo Olabe  
Delegatua: Juanito Orobengoa  
Masajista: Alberto Laskurain

### 85-86 plantila

Bienvenido Velasco, Cesar Fernandez, Fermin Carrillo, Iñaki Errasti, Juan Domingo, Juan M<sup>a</sup> Sanchez, Aitor Diaz, J. Antonio Diaz de Gereñu, Josu Maturana, Roberto Iria, Migel Angel Mateo, Alejandro Bastida, Fco Manuel Moreno, Marcial Perez, Antonio Martin, Asier Aranguren, Pedro Luis Vesga, Eleuterio Cid.

Entrenatzailea: Jesus Aranbarri  
Lehendakaria: Jose Angel Etxebarriarteun  
Delegatua: Jose Migel Uribarren

### Iñurrategi anaiak eta Josu Bereziartua eguraldia hobetzeko zain daude

Eguraldi txarra dela eta Iñurrategi anaiak eta Josu Bereziartuak ez dute oraindik Shisha Pangma mendia egiteko aukerarik izan.

Eguraldiak hobetuko duenaren zain daude. Hala ta ere, urriaren 15a jarri dute azken eguna moduan. Egun horretara arte proiektua lehen bezala mantenduko dute.

Ia ba, hurrengo notizietan Shisha Pangma-ko igoera nolakoa den kontatzen diguten.

### Zikloturistek bukatu zuten aurtengo denboraldia

Pasatu den domekan, urriaren 6an egin zuten zikloturistek azkenengo martxa. 57 Kmtako ibilbidea: Aretxabaletan hasi Bergara, Antzuola, Epele, Arrasate, Arlaban eta Aretxabaleta.

Udaberrian hasi eta udazkene arte domekero egin dituzte irteerak eta guztira 2.200 Kmtik gora egin dituzte. Orain datorren udaberrira arte merezitako deskantsua izango dute.



# Datorren domekan txirrindulari profesionalen kriteriuma egingo da

Urriaren 13an txirrindulari profesionalen kriteriuma egingo da Aretxabaletan UDAko 50. urteurrenaren ospakizunen barruan. Txirrindulari profesionalak eta afizionatuak parte hartuko dute bertan. Proba 11,30etan hasiko da eta 3 zati izango ditu: puntuazioa, fondoa 12,15etan eta eguerdiko ordu 1etan kanporaketa. Ibilbidea Durana, Mitarte eta Errekabarren kaleetan zehar egingo da.

EUSKADI, ONCE, MAPEI, BANESTO, POLTI, GEWIS, IBERDROLA, ARRASATE TXIRRINDULARI ELKARTEA ETA CAJA RURAL taldeetako txirrindulariak izango ditugu kriterium honetan, 15 profesional eta 7 afizionatu. Hona hemen kriteriumean parte hartuko duten txirrindulariak.



*Durana  
kalean  
11,30etan  
hasiko da  
proba.  
Errekabarren,  
Mitarte eta  
Durana  
kaleetan  
zehar izango  
da ibilbidea.*

## Profesionalak:

Asier Guenetxea (EUSKADI)  
Igor Glez de Galdeano (EUSKADI)  
Alvaro Glez de Galdeano (EUSKADI)  
Iñigo Glez de Heredia (EUSKADI)  
Unai Etxebarria (EUSKADI)  
Alberto Leanizbarrutia (ONCE)  
Aitor Garmendia (ONCE)  
Ricardo Otxoa (ONCE)  
David Cañada (ONCE)  
Fede Etxabe (MAPEI)  
Arsenio Gonzalez (MAPEI)  
Jose Ramon Uriarte (BANESTO)  
Jose Luis Arrieta (BANESTO)  
Inigo Chaurreau (POLTI)  
Jon Odriozola (GEWIS)

## Afizionatuak:

Josemi Elizburu (IBERDROLA)  
Jon Aperribai (ARRASATE T. E.)  
Sergio Frutos (ARRASATE T. E.)  
Jon Azkorra (ARRASATE T. E.)  
Oskar Askasibar (ARRASATE T. E.)  
Iker Flores (CAJA RURAL)  
Ruben Lopez de Munain (CAJA RURAL)

# Kross herrikoia

UDAko 50. urteurreneko ospakizunekin jarraituz urriaren 20an Kross herrikoia egingo da. Lasterketa eguerdiko 12etan hasiko da Durana kalean. Gero Lausita, Errekabarren eta Portasol aldera luzatuko da, guztira 2.500 m. Gizonezkoek lau bira (10 km) eman beharko diote eta emakumezkoek hiru (7,5 km).

Sari garrantzitsuak egingo dira: Gizonezkoetan, 1.goa 50.000 pta eta trofeoa; 2.a 40.000 pta eta trofeoa; 3.a 30.000 pta eta trofeoa; 4.a 25.000 pta; 5.a 20.000 pta; 6.a 15.000 pta; 7.a 10.000 pta. Lehenengo beterranoarentzat eta juniorarentzat 15.000 pta eta trofeoa egingo dira.

Emakumeetan, 1.goa 30.000 pta eta trofeoa; 2.a 25.000 pta eta trofeoa; 3.a 20.000 pta eta trofeoa; 4.a 15.000 pta, 5.a 10.000 pta eta 6.a 5.000 pta. Lehenengo emakume beterrano eta juniorarentzat 10.000 pta eta trofeoa egingo dira.

Maila bakoitzeko herriko lehenengoak ere saria jasoko du. Honez gain, proba amaitzen duten guztiek 50. urteurreneko kamiseta bana jasoko dute.



*Javier Conde, Joseba Larrinaga, Diego Garcia eta Martin Fizek, gure atleta olinpikoeke omenaldia jasoko dute*

Proba hasi aurretik, infantil eta kadete mailako neska-mutilen probak egingo dira. Kasu honetan maila bakoitzeko lehen hiru sailkatuentzat trofeoa egingo da.

Bestalde, krossa amaitzen denean gure atleta olinpikoei, Martin Fiz, Diego Garcia, Javier Conde eta Joseba Larrinagari omenaldia egingo zaie.





# Akordeoi orkestra Italian



Urriaren 8an irten zuten eta dagoeneko Italian dira Aretxabaletako akordeoi orkestrakoak. **Juan Jose Orobengoak** zuzentzen duen taldeak Castelfidardo italiar herrian egiten den Nazioarteko Jaialdian parte hartuko du.

Bidaia hau egitearen ideia orain urtebete ingurutik dator. Azken hiru urtetan orkestrako neska-mutilek egindako esfortzua eta lana nabarmena izan da, 20-35 kontzertu bitartean eman dituzte urtean. Horregatik, urte hauetan egindako esfortzuari motibazio sendoago bat eman gura izan diote bidaia honen bitartez.

Maila handia duen nazioarteko jaialdi batean parte hartuko dute. Castelfidardo, Italiako Ancona probintzian dagoen herria da eta garrantzitsua eta ezaguna da bertan dauden akordeoi enpresengatik.

Orobengoaren neska-mutilek 16 urtetik beherakoentzat den junior kategorian parte hartuko dute. Bertan 25 minututako programa librea jo beharko dute.

Urriaren 12an izango da euren ekitaldia. Baina honez gain, taldeko beste partaide batek, Ainara Jorgek hain zuzen ere, 15 urterarteko bakarkako kategorian parte hartuko du. Ainarak, bi obra joko ditu, derrigorrezkoa bata eta librea bestea. Besterik barik zorte onena opa diegu bai talde osoari eta baita Ainarari ere. Zorte on!

Urriaren 16an itzuliko dira ostera ere etxera. Jaialdian parte hartu eta hurrengo egunetan Erroma bisitatuko dute, akordeoi museo eta fabrika ikusiko dute bertan. Denetik egingo dute, jaialdian parte hartzeaz gain, akordeoiaren inguruan hainbat gauza ezagutzeko aukera ere izango dute eta.

## Gaztetxoen orkestra Irunera



GAZTETXOEN ARETXABALETAKO AKORDEOI-ORKESTRA

Batzuk Italiara joango badira ere Aretxabaletako gaztetxoen akordeoi orkestrakoek Irun Hiria saria txapelketan parte hartuko dute datorren asteburua.

Txapelketa hau Espainia mailan egiten den lehen akordeoi orkestra txapelketa da. Urriaren 11tik 13ra bitartean ospatuko da eta 3 kategoria egongo dira. Luis Mari Elkorobarrutiaren neska-mutilek erdiko kategorian parte hartuko dute. Derrigorrezko obra bat eta 10 minututako repertorio librea jo beharko dute.

Azken asteotan entsaio asko egiten ari dira. Ia ba egindako lanak fruiturik ematen duen, eta zuoi ere zorterik onena.





## *Eskolara buelta*

Ikasturte berriarekin batera aintzinako eskolako argazkiak ezin digu hutsik egin.

Opor ostean eskolara joateko ordua iritsi zitzairen argazkiko mutikoei ere. Zer esanik ez neskak eta mutilak bananduta egiten zituzten euren ikasketak. Normalean, Matematika, Espainiar hizkuntza eta Geografia ikasten ziren.

Argazkia, plazako eskilaratan ateratakoa da, 1947. urte inguruan. Garai batean behintzat kaleko eskolan zebitzen ume guztiek plazako eskilaretan ateratzen zuten argazkia. Zenbat argazki atera ete ziren bertan. Argazkian ikus daitekeen moduan, orduan ez zegoen gaur egun moduko lujorik. Mutilak, negu nahiz uda fraka motzetan ibiltzen ziren, esporta luzeekin, eta oinetako moduan, alpargatak, albarkak edo zapatak erabiltzen zituzten. Zegoenarekin konformatu egin behar...

Argazkikoak: Goiko laurak ezkerretik eskumara: **Migel Anduaga, Conrado Eraña, Adrian Lopez Dominguez, Ignacio Uribetxebarria.**

Erdiko iladan: **Jesus Lasagabaster, German Gonzalez, Jesus M<sup>a</sup> Isasmendi, Jose Ignacio Zubia, Domingo Otxoa, J. M<sup>a</sup> Axpe, Javier Zabala, Emiliano Altube.**

Beheko iladan: **Jose Ramón Rodriguez, Jesus M<sup>a</sup> Zuazua, Jose M<sup>a</sup> Idigoras, Luis M<sup>a</sup> Iturbe, Jesus M<sup>a</sup> Santamaria, Luis Guridi, Ignacio Eraña, Pedro Etxebarriarteun, Pedro Urcelai.**

**LEIBAR**  
ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79  
ARETXABALETA



**HAIZEA**  
AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G  
Tfnoa: 79 85 57



# Berriro lanera



M.J. Aretxaga

San Migelak bukatu dira. Orain egutegiari begiratu eta "bixamona" sentsazioa haundiagotu egiten zait.

Akabo jaiak, manga motzak eta eguzki beroa!

Urtearen sasoi ilunenean sartzen gara. Eskerrak aurten ez dutela oraindik ordutegia aldatu, urria hobeto aprobetxatuko dugu modu honetan.

San Migelak eman diote amaiera udari, baina Aretxabaletan badugu beste UDA bat ere. Azken honek ekintzaz betetako udazkena antolatu du. Besteen artean, urriaren 20an **Martin Fiz, Diego Garcia, Javier Conde eta Joseba Larrinaga** maratolariari omenaldia egingo zaie.

Urriaren 13an txirrindulari lasterketa izango da eta bertan **Asier Guenetxeak** eta **Josemi Elizburuk** eramango dute atxabaltarren estandartea. Ia ba, zorte ona duten.

Berriro be jaiak aipatu behar ditut, San Migelak gauza batzuk ditut kontatzeko eta. Aurtengoak bereziak izan dira. Sokamuturrik ez zen aipatzen programan baina takarraran egiteko aukera izan genuen gau aldera. Ertzantzak esku azkarra zuela erakutsi zuen. Ez ziren bakarrak izan, beste batzuk txiskeroekin erakutsi zuten abilezia. Gero denok ekologista sutsuak gara esango dugu. Baina hobe izango da kontu alaiagoetara jotzea. Ferixa biologikoan, **Jose Lombide** izan zen irabazlea. Txirrindulari lasterketan **Mikel Roldan** hirugarrena sartu zen helmugan.

**Murrukixokoak** be fin aritu ziren errifak saltzen. Sari guztiak etxean geratu ziren. **Gotzone Guemes** izan zen bi txerrikumeak eramane zituena. **Jose Juan Olabek** eramane zuen bestea. Bi oilaskoak **Francisco Javier Horrillorentzat** izan ziren eta azkenengo saria **J.R. Kintanilarentzat**, honek bi untxi eramane zituen. On egin danok!

**Intsumituek** antolatutako bazkaria ere kristona izan zen. Aurten gainera sari bizia egon zen, oilaskoa! Aretxabaletatik kanpora joan zitzaigun.

Hemendik aurrera neguko egun ilunak pasatzen laguntzeko zinea izango dugu. Orain ez duzue aitzakiarik eta joan zinera, bestela ostera be itxiko digute. Ni behintzat gustora joango naiz.



## Nerea Euskerajatorregi-ren ibilerak



Betetak → TXARTO  
Beteta → ONDO

Marrazkiak: Mikel Arroiabe


**loramendi**  
eusquera elkartea





## Inaki Perurena

## "Munduan urrunen Japonen izan naiz harri jasotzen"



Leitzakoa dugu Iñaki Perurena. 40 urte bizkar gainean izan arren, oraindik ere harriak jasotzen trebea dela erakusten digu. Harrijasotzeaz gain, baserriko lana ere egiten du eta telebistan munduan ere sarri ikusi dugu Iñaki, azkenengoz Goenkale telesailen.

• **Jendeaurrean jaso zenuen lehen harria zenbat kilotakoa izan zen?**

17 urterekin txapelketa batean parte hartu nuen eta 175 kiloko harria jaso nuen 6 alditan.

• **Kontaiguzuzure errekoren barri.**

Aipagarrienak 320 kilo bi eskukin; 267 kilo esku batekin; 225 k. kubikoa 7 alditan jaso nuen eta 211 k. borobila.

• **Ez da gutxi. Gehiago egongo dira?**

Kirolari bakoitzak bere garaia du. Ni orain erakustaldiak ematen ibiltzen naiz.

• **Zein motako harria jasotzen duzu gustoroen?**

Harri bakoitzak bere grazia du. Harri guztiakin ibiltzea gustatzen zait. Beharbada nire trebetasunik haundiena esku bakarrarekin erakutsi dut.

• **Seme-alabek jarraitzen dizute?**

Bai, 12 urtetako semea ibiltzen da harriarekin eta ilusio haundia egiten dit.

• **Gure herrian izan zara lehenago?**

Bai, orain 17 bat urte kirol etxean egin nuen saio bat.

• **Harriaz arazorik izan duzu?**

Harriaz kilo asko ibiltzen dira eta lesio txikiak beti izaten dira, haundirik ez dut izan.

• **Munduan urrunen non altxatu duzu harria?**

Japonen. Japonesak sarri etorri dira Euskal Herrira eta ezagutzen dute pixkat mundu hau.

• **Herri kirola ez da desagertuko?**

Euskeraren anaia txikia da herri kirola eta euskera mantentzen egin behar den ahalegina herri kirola mantentzen ere egin behar da.

• **Goenkalen goapo-goapo agertzen zara. Badu pertsonaia horrek zurekin antzik?**

Ez gehiegi, adinean agian. Hura enpresarioa da eta ni ez.

• **Aktore lana gustatzen zaizu?**

Bai, Goenkalekoa benetan esperientzia polita da.

• **Denetarako denbora ateratzen duzu?**

Gero eta estuago ibiltzen naiz. Egunak 24 ordu ditu eta hori ezin da luzatu.

• **Zenbat erakustaldi ematen dituzu urtean?**

Nire urtea San Juanetan hasi eta orain bukatzen da. Tarte horretan astebukaera guztiak okupatuta izaten ditut.



## Irakurtzeko liburuak

## Untxetxoaren liburuak bilduma

*Idazlea:* Alan Baker

*Argitaletxea:* FHERSAL, 1995.

*Bildumako tituloak:*

Untxe marroia eta formak

Untxe zuria eta koloreak

Untxe Zuri-beltza eta letrak


Untxe grisa eta zenbakiak



Oraingo honetan bilduma bat aurkeztu nahi dizuet. Liburu hauek didaktikoak dira, baina ekintzaz beteta ere badaude eta haurrak ikasteaz batera ondo pasatuko dutela uste dut. Inguruko mundua ikertzen ari diren untxe bihurri eta jakingura hauei esker 3 urtetik aurrera umeek badute zer ikusi eta ikasia.

Bilduma honen aurkezpena aprobetxatuz azpimarratu nahi nuke liburuak gozatzeko aldia ez dela irakurketaren ikasketarekin hasten, askoz ere lehenago baizik, haurra lehen pausuak ematen, lehen hitzak ahozkatzen eta lehen irudiak bereizten hasten den une beretik. Adin hauetan edozein liburu izan daiteke erakargarria umeentzat, baldin eta helduok indar afektiboz biltzen badakigu haurra. Haurra lehen urtetik liburuarekin harremanetan jartzea mesedegarria da gero ere berarengan irakurzaletasuna suspertzeko.

✍ Joseba Lopez de Armentia



## ARGÍ-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia  
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

**BASTER-ALDE  
JATETXEA**



**SASOIKO JAKIAK  
GIRO ONENEAN**

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA



ARRASATE



Urriak 12

UDALAITZ EGUNA

UDALAITZEN gurutzea jarri zeneko 25. urteurrena ospatzeko jaialdia egongo da Amaia Antzokian. Arratsaldeko 7etan.

Urriak 17 eguena

ZINEA

"ED WOOD" filmea. Amaia Antzokian gaueko 9,30etan.

Urriak 24 eguena

ZINEA

"MANEKEN PIS" filmea. Amaia Antzokian gaueko 9,30etan.

Arrasaten, **DANTZA KARIBEARREN IKASTAROA.**

15 urtetik gorakoei zuzenduta. Iraupena: azaroaren 11tik abenduaren 11ra. Astelehen eta asteazkenetan, arratsaldeko 7,30etatik 9,30etara. Prezioa: 4.000 pezeta. (2.500 ikasle eta langabetuentzat). Informazioa: Gazte bulegoa: 77 00 65.

OÑATI



San Migelak

Urriak 12

Goizeko 10etan San Migeletako IX. MONTAIN BIKE IRTEERA.

Urriak 20 domeka

Goizeko 11etan Zubikoa pilotalekuan Oñatiko V. **ESKALADA TXAPELKETA (kanporaketak).** Arratsaldeko 5etan V. **ESKALADA TXAPELKETAREN FINALAK.**

**Perkusio ikastaroa Arrasaten**

Gaztetxeko lokal batean emango da ostegunetan arratsaldeko 5etatik 7etara bitartean. Emailea Iñaki Bruña da. Instrumentorik ez izan arren ere parte hartu daiteke ikastaroan. Informazio gehiagorako telefonoa: 79 80 25.

ARETXAZOKA

• Udan giltza batzuk aurkitu ziren Ugaztegi inguruan. Telefonoa: 79 01 05.

• San Migeletan urrezko pultsera bat galdu zen. Balore erreala baino garrantzitsuagoa da duen balore sentimental, pertsonala. Tfnoa: 79 54 04

• San Migeletan txaketa bakeroa galdu zen bi giltzarekin. Informaziorik duenak deitu 79 01 05 telefonora.

• Egunero Bergararik Gasteizera doan autobus bat osatzeko jendea behar da. 14,30etan irten eta 20etan itzultzeko. Telefonoa: 79 32 58. Amaia.

**LANA**

• **Ameriketean au-pair.**

Gai honen inguruan informazio gehiago gura duenak deitu telefono honetara: (943) 79 41 83 (Osane Ayastuy).

• Andereño diplomatua klase partikularrak emateko gertu dago. (OHoko lehen mailatik Boko bigarren mailararte). Telefonoa: 79 75 23.

• Farmazian lizentziatuak klase partikularrak ematen ditu. (OHO eta BO zientzia gaiak). Tfnoa: 79 74 73.

**ETXEBIZITZA**

• Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke. 79 16 15 telefonora deitu goizez 10etatik 12etara eta arratsaldeko 3,30etatik 8etara bitartean. Ritagatik galdetu.

• Etxeko lanak edo antzekoak egiteko neska bat eskaintzen da. Tfnoa: 77 09 08 Elenagatik galdetu.

• Pisia salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Eguerdiaren eta arratsaldean).

• Garaje bat behar dut Portasolen. Telefonoa: 77 00 62.

• Garaje bat salgai dago Errekabarrenen. Interesatuta zaudetenok deitu 79 69 61 telefonora. (Arratsaldeko 8etatik 10etara bitartean).

• 82 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago. Telefonoa: 79 01 17

• Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke. Telefonoa: 77 04 58 (Erantzungailuak erantzungo du)

**Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali Kultur etxean dagoen buzoira edo eta deitu 79 01 05 telefonora.**





**Urriak 13 domeka**

**TXIRRINDULARI KRITERIUM PROFESIONALA**

**Errekabarren, Durana eta Mitarte**  
kaleetan zehar goizeko 11,30etan hasita.

**NAFARROA OINEZ**

**Etxarri Aranazen** ospatuko da. Loramendi E.ak autobusa antolatu du. Urriaren 11 baino lehenago eman behar da izena Loramendi E.an edo Arlutz talbernan. Prezioa: 1000 pezeta. Autobusak 8:45etan irtengo du monjetako paradatik. Txartela eramatea derrigorrezkoa da.

**Urriak 18, 19, 20**

**IRATIRA IRTEERA**

**Murrukixo M.E.ak Iratira** irteera egingo du. Eguakotx ilunkaran irten eta itzulera domeka arratsaldean egingo da. Izena emateko Arlutz tabernan egin daiteke, bazkideek 500 pezeta ordainduz eta bazkide ez direnek 1.000 pezeta.

**ZINEA HASIKO DA**

**Urriak 20 domeka**

**KROSS HERRIKOIA**

**Taila ikastaroa**

Okila taldeak taila ikastaroa antolatu du. Ikastaroa 60 ordutakoa da eta hasieratik hasiko da. Okila taldearen tailerlean emango da 6etatik 8etara.

Ikastaroa urriaren 7an hasi bazen ere oraindik apuntatu daiteke. Horretarako, Okilaren tailerlean, udaletxean edo eta kultur etxean eman daiteke izena. Ikastaroan parte hartzeko 16 urtetik gorakoa izatea eskatzen da.

**Behobia-Donostia**

Azaroaren 10ean Behobia-Donostia lasterketa herrikoia egingo da. Proba honetan parte hartzeko asmoa duten atxabaltar guztiei urriaren 26an eguerdiko 12,30etan kiroletxean taldeko argazkia aterako dela adierazten zaie. Puntualitatea eskatzen da.



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Aretxabaleta**

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi K.E.	77 0970
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otorra	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

**Udaltzaingoa**

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	71 44 07
• Oñati	78 04 11

**Denetarik**

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088

**BEIRALAN**  
**KRISTALDEGIA**  
Loramendi 10 ☎ 79 81 78  
Aretxabaleta

**IRIARTE**  
**Umeen denda**  
Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 10 96

**MEMESA S.L.**  
**Industriaren alde**  
Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETAKO

**CONSUM EROSKI**  
BETI ZURE ZERBITZURA  
Durana, 8 Aralar z/g  
Tfnoa: 79 19 34 Tfnoa: 79 16 05  
ARETXABALETAKO

**OLABEN**  
Basabe Poligonoa A-15  
☎ 79 34 28  
ARETXABALETAKO


**J.J**  
**ITURGINTZA**  
Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



sofa  
leku

centro  
hogar  
MUEBLES

a, eme... interiores



Estilo  
guztietako altzariak  
aurkituko dituzu gure  
dendetan.

Zatoz, eta zuk  
aukeratu!!



grupo



Amuebladora  
Mondragonesa

**a. eme. interiores**, Garibai, 9 - ARRASATE - Tel. 79 15 03  
**centro hogar muebles**, Zigarrola, 1 - ARRASATE - Tel. 77 14 92  
**sofa leku**, Zigarrola, 1 - ARRASATE - Tel. 77 14 92